



ARRATIA

ESKOLAKO AGENDA 21

Biodibertsitatea, espezie inbaditzaileak ekidin 2016-17

PROPOSAMENAK ETA KONPROMISOAK



Aurkibidea.

SARRERA.....	3
DIMA ETA IGORREKO IKASTETXEEK HARTZEN DITUZTEN KONPROMISOAK.....	4
DIMA ETA IGORREKO IKASTETXEEK UDALARI EGITEN DIZKIOTEN PROPOSAMENAK..	5
INAZIO ZUBIZARRETA ESKOLAK UDALARI EGITEN DIZKION PROPOSAMENAK.....	6
ARRATIA BHI-K UDALARI EGITEN DIZKION PROPOSAMENAK.....	7
DIMA-UGARANA ESKOLAK UDALARI EGITEN DIZKION PROPOSAMENAK.....	8



SARRERA

Aurreko maiatzaren 12an, Igorreko Kultur Etxean, 2016-17 ikasturteko Arratiako Eskolen arteko Foroa aurrera eramán genuen.

Topaketa honen helburu nagusia, udal foroan aurkeztu beharreko konpromiso eta proposamenak lantzea izan zen baina horretaz gain, Eskolako Agendako parte-hartzaileek elkar ezagutzeko eta esperientziak trukatzeko momenturik ezin hobea izan zuten. Beraz, lehenik eta behin identifikazio txartelak ipini eta ongietorria entzun eta testuinguruan jarri ondoren, elkar ezagutzeko dinamika bat egin zuten.

Gero, taldeetan udal diagnostikoaren ondorioak kontuan hartuz eta aurretik bidalitako proposamenak ere, ikasleek Arratiak biodibertsitatea jagoteko eskaerak egin zituzten.

Ingurumena guztion ardurá denez, haiek ere konpromisoak hartu zituzten.

Ondoren adierazten diren udalerriko ikastetxeetatik 22 ikaslek hartu zuten parte:

- Dima-Ugarana LHI
- Inazio Zubizarreta LHI
- Arratia BHI

Mankomunitate mailan konpromiso eta proposamenak egiteaz gain, ikastetxe bakoitzak ere beste proposamen batzuk egin zituen. Hauek ere txosten honetan bildu dira.



DIMA ETA IGORREKO IKASLEEK BIODIBERTSITATEA JAGOTEKO HARTZEN DITUZTEN KONPROMISOAK

Gure udalerrria eta ikastetxeak aztertu ondoren, Arratiako ikasleek ingurumena eta biodibertsitatea zaintzeko eta errespetatzeko konpromisoak hartzen ditugu.

Horretarako:

1. Listor asiatiakoaren erlauntza ikusterakoan abisatuko dugu.
2. Landareak, zuhaitzak eta natura zainduko dugu, eta beste pertsonak gauza bera egitera animatuko ditugu.
3. Ez ditugu ibaiak zikinduko ezta ingurune naturala ere .
4. Ingurumen zaintzeko, kotxea ahal den gutxien erabiltzeko esango diegu gurasoei, eta bizikleta edota garraio publiko gehiago erabiliko dugu.
5. Biodibertsitatearen alde kontsumoa murriztuko dugu.
6. Izaki bizidunak errespetatuko ditugu.
7. Errekak garbituko ditugu eta garbi mantentzeko zaborra zakarrontzira botako dugu.



DIMA ETA IGORREKO IKASTETXEEK UDALARI EGITEN DIZKIOTEN PROPOSAMENAK BIODIBERTSITATEA JAGOTEKO

Baina gure ikastetxe eta udalerrriaren kalitatea hobetzeko, gure konpromisoak betetzeaz gain, Udalaren laguntza behar dugu, beraz hurrengo hauek eskatzen ditugu:

1. Industrien isurketak kontrolatzea.
2. Zakarrontzi gehiago jartzea.
3. Brigada ekologiko bat egitea.
4. Herria orokorrean eta bereziki ibaiaren bazterrak garbitzeko eguna antolatzea.
5. Bide berdeak egitea.
6. Bizikletaren erabilera erraztea.
7. Jai ekologikoak egitea.
8. Hemengo eta bertako produktuekin dastatzea egitea.



INAZIO ZUBIZARRETA ESKOLAK UDALARI EGITEN DIZKION PROPOSAMENAK BIODIBERTSITATEA BABESTEKO

1. Herriko bazterrak garbitzea bertako animaliak eta landareak arrisku barik hazteko.
2. Landaketa berrietan bertako zuhaitzak eta landareak landatzea .
3. Inbaditzaileak suntsitzea.
4. Jaialdietan antolatzaileei hondakinen bereizketaz arduratzea.
5. Presa kentzea edo/ta inguruko zementua ere.



ARRATIA BHI-K UDALARI EGITEN DIZKION PROPOSAMENAK

BIODIBERTSITATEA BABESTEKO

1. Erreka bazterrak garbi mantentzea.
2. Espezie erasotzaileak kentzea.
3. Parkea baldintza onetan mantentzea.
4. Banaketa egiteko zakarrontziak ipinten hastea.
5. Presaren beharrak birplanteatzea.
6. Zaborraren kontrako eguna jartzea.



DIMA-UGARANA ESKOLAK UDALARI EGITEN DIZKION PROPOSAMENAK BIODIBERTSITATEA BABESTEKO

1. Obrak egiteko ekosistemak eta basoak ez suntsitzea, ezta kutsatzea ere.
2. Herrian eraikitzen diren espazio barriak jasagarriak izatea.
3. Berdegune gehiago eta zementu gune gutxiago egitea.
4. Zabortege ilegalak ikusiz gero garbitzea.
5. Parkeetan plastikoa, papera, materia organikoa eta errefusa birziklatzeko edukiontzia jartzea.
6. Substantzia kutsakorren, kimikoen, eta abarren kontrol zorrotzak egitea. Kaleak kutsadura kimiko gutxiko produktuekin garbitzea.
7. Mendian, etxe inguruetan sua egitea debekatzea.
8. Kutsakorrek ez diren energia berriztagarrien erabilpena sustatzea.
9. Natura eta natur guneak, babestu eta garbi mantentzea. Gune naturalak beste era batera kudeatzea, ondare eta baliabide naturalak ez xahutzea.
10. Arriskuan dagozan espezieak defendatzea eta zaintzea.
11. Mehatxatutako espezieen habitatak ez apurtzea. Espezie hauek babesteko neurriak hartzea.
12. Herritarrak informatzea eta kontzientziatzeko ekimenak egitea.
13. Errekak garbitako urteera, egunak antolatzea.
14. Zuhaitz eguna antolatzea, bertako zuhaitzak landatzea herriko basoetan.